


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %15,6 murriztu zen 2012ko hirugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean %1,3 handitu zen

Euskal AEko eraikuntza: EUSTATEk landutako datuen arabera, 2012ko hirugarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %15,6 murriztu zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntza jardura.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2012ko hirugarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %1,3 handitu zen, aurreko hiruhilekoaren aldean.

1. grafikoa: Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua Guztira, Eraikuntza eta Obra zibila (%)



Iturria: Eustat. Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKBI)

2012ko hirugarren hiruhilekoan, Eraikuntza sektorearen jaitsiera Etxegintza azpisektoreari -urte arteko %13,5eko jaitsiera izan baitzuen-, eta Obra zibilekoari, -%19,3koa- zor izan zitzaien.

Hiruhilekoen artean, 2012ko hirugarren hiruhilekoko sektoreko jardura aurrekokoarekin alderatuz gero, Etxegintzak bilakaera positiboa du, %1,0; baita Obra Zibilak ere, %1,9.

Eraikuntzako enplegua %4,3 jaitsi zen 2012ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

**1. taula: Eraikuntzaren Koiunturako Indizea Euskal AE 2012ko 3. hiruhilekoa.
Aldakuntza tasak (%)**

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	12 3.hir / 11 3.hir	At/At-1 (1)	12 3.hir / 12 2.hir	12 2.hir / 12 1.hir
Produkzioaren indizea	-15,6	-20,6	1,3	-6,5
Eraikuntza	-13,5	-18,9	1,0	-5,4
Obra zibila	-19,3	-23,6	1,9	-8,7
Landunen indizeak	-	-	-4,3	-4,5

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKBI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea \(EKBI\); prentsa ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea \(EKBI\); datu-bankua](#)